



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2019ko MAIATZAREN 23ko OHIKO OSOKO BILKURA

SESIÓN PLENARIA ORDINARIA DE 23 DE MAYO DE 2019

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2019ko maiatzaren 23an 19:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da ohiko bileran. Joseba Otondo Bikondoa alkate jauna buru dela, honako zinegotziak etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Juan Cruz Iriarte Bañez eta Maite J. Iturre Llano EH-BILDU taldekoak; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren eta Jose Javier Aguirre Azcarraga UPN taldekoak; Ruben Ciganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoak; Florentino Goñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Alejandro Martín Ibarra BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa.

Ez da bertaratu María Isabel Olave Ballarena.

Idazkari lanetan Ainara Vélez Ara aritu da.

Alkatearen aginduz bilkura hasi da.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 19:00 horas del día 23 de mayo de 2019, se reúne, en sesión ordinaria el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, Juan Cruz Iriarte Bañez y Maite J. Iturre Llano por el grupo EH-BILDU; Begoña Sanzberro Iturriria, María Carmen Iribarren Iribarren, José Javier Aguirre Azcarraga por el grupo UPN; Rubén Ciganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI; Florentino Goñi Tellechea e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Alejandro Martín Ibarra, por el grupo BAZTAN AUZOLANEAN.

No asiste María Isabel Olave Ballarena.

Actúa como secretaria Ainara Vélez Ara.

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- AKTAK ONARTU

2019/04/25eko ohiko osoko bilkuraren eta 2019/04/29ko ezohiko osoko bilkuraren **aktak** bertan diren guztiak bat etorrita **berretsi dira**.

2.- BAZTANGO UDAL PLANEKO EGITURAZKO ALDAKETA PUNTUALA LEKAROZKO 14. POLIGONOKO 341 LURSAILEAN, MARIA CRISTINA ELIZALDE JUANICOTENAK SUSTATUA. BEHIN BEHINEKO ONESPENA.

María Cristina Elizalde Juanicotena Baztango Udal Planeko egiturazko aldaketa puntuala aurkeztu zuen, Lekaroz-Baztango Oharriz auzoko hiri-lurzoruaren mugaketa aldatzeko asmoz.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS

Las actas de la sesión plenaria ordinaria de 25/04/2019 y de la sesión plenaria extraordinaria de 29/04/2019 son ratificadas por unanimidad.

2.- MODIFICACIÓN PUNTUAL ESTRUCTURANTE DEL PLAN MUNICIPAL DE BAZTAN EN LA PARCELA 341 DEL POLÍGONO 14 DE LEKAROZ, PROMOVIDA POR MARÍA CRISTINA ELIZALDE JUANICOTENA. APROBACIÓN PROVISIONAL.

María Cristina Elizalde Juanicotena presentó una solicitud de modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Baztan con objeto de modificar la delimitación del Suelo Urbano del barrio de Oharriz, en Lekaroz-Baztan.



2018/11/22an egindako ohiko osoko bilkuran aldaketa hasiera batez onetsi zen. 2018/12/07ko 235. Nafarroako Aldizkari Ofizialean hasierako onespena iragarri zen. Jendaurreko epea alegaziorik gabe behin pasatuz gero eta Udal Arkitekto aholkulariaren eta Nafarroako Gobernuko Lurralde eta Paisaia Zerbitzuaren aldeko txostenak izanik, **Udalbatzak** aho batez, honakoa **erabaki du**:

1.- **Behin behinekoz onestea** Baztango Udal Planeko egiturazko aldaketa puntuala 14 poligonoko 341 lursailean, Lekaroz-Baztango Oharriz auzoko hiri-lurzoruaren mugaketa aldatzen duena, administrazio publiko interesdunen txostenek, hala balegokie, ezartzen dituzten ondoriozko aldatetekin.

2.- Espediente osoa Nafarroako Foru Administrazioari **igortzea**, behin betiko onetsi dezan.

3.- Erabaki hau interesdunei **jakinaraztea**, zein errekurtso jar dezaketen aditzera emanaz.

GALDE-ESKEAK

Begoña Sanzberrok galdetzen du ea Berroetan, Artxekordan hondoratu den bidean aurreikusita dagoen moldaketarik.


Florentino Goñik erantzuten dio biribilgune erdi bat egin behar dela, enpresa ezberdinekin harremanetan jarri dela.

Begoña Sanzberrok galdetzen du Batzar Nagusiak mahi ganean utzi zuen Berroetako gaiaren inguruan ea erabakiren bat hartu egin den.

Juan Cruz Iriartek erantzuten dio akordiorik ez dela hartu eta datorren astean bilera bat daukatela.

Aztertze gai gehiagorik ez dagoenez, bilera bukatu aurretik Joseba Otondok eskerrak ematen eta aitortza egiten die hurrengo legealdian errepikatuko ez dutenei, 19:18ean alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
LA SECRETARIA

En sesión plenaria ordinaria de -22/11/2018 se aprobó con carácter inicial. Con fecha 07/12/2018 la aprobación inicial fue publicada en el Boletín Oficial de Navarra nº 235. Pasado el periodo de exposición pública sin que se hayan presentado alegaciones y vistos los informes favorables del Arquitecto asesor del Ayuntamiento, del Servicio de Territorio y Paisaje del Gobierno de Navarra, el Pleno por unanimidad de los presentes acuerda:

1.- Aprobar provisionalmente la modificación puntual estructurante del Plan Municipal de Baztan para modificar la delimitación del Suelo Urbano en la parcela 341 del polígono 14 del barrio de Oharriz, en Lekaroz-Baztan, con las modificaciones resultantes en su caso, de los informes emitidos por las Administraciones Públicas interesadas

2.- Remitir el expediente completo a la Administración Foral de Navarra para su aprobación definitiva.

3.- Notificar este acuerdo a los interesados, con ofrecimiento de los recursos que sean procedentes.

RUEGOS Y PREGUNTAS

Begoña Sanzberro pregunta si en Berroeta, en Artxekoborda, hay alguna previsión de arreglo del camino que se ha hundido.

Florentino Goñi le responde que hay que hacer una media luna y se ha puesto en contacto con distintas empresas.

Begoña Sanzberro pregunta si se ha tomado alguna decisión sobre el tema de Berroeta que quedó sobre la mesa en la Junta General.

Juan Cruz Iriarte le responde que no se ha tomado ninguna decisión y que se reunirán la semana que viene.

No habiendo más asuntos a tratar, antes de concluir la reunión Joseba Otondo agradece y reconoce la labor a los corporativos que no se vuelven a presentar en las elecciones, levantando a las 19:18 horas el señor alcalde la sesión, de todo lo cual, como secretaria, doy fe.